Bestelako Xedapenak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

4825

EBAZPENA, 2009ko uztailaren 15ekoa, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Lan eta Gizarte Segurantza zuzendariarena, Osakidetzako Garbiketa Zerbitzuaren Enpresa Emakidadunentzako Sektoreko 2009. urterako hitzarmen kolektiboaren soldataren berrikuspena erregistratu, gordailatu eta argitaratu dadila xedatzen duena (8602115 hitzarmen kodea).

AURREKARIAK

Negoziazio-mahaiko ordezkariek zuzendaritza honetan 2009ko ekainaren 25ean aurkeztu zuten aipatutako hitzarmenaren berrikuspenari buruzko derrigorrezko dokumentazioa.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Langileen Estatutuari buruzko Legeko 90.2 artikuluak (martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretua, 1995-03-29ko BOEn argitaratua) aurreikusten duen eskumena lan-agintaritza honi dagokio, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren arabera. Bestalde, Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritza da organo eskuduna, maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuko lehenengo xedapen iragankorraren arabera behin-behingoz aplikatu beharreko Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren organoen eta egitekoen egitura finkatzen duen urriaren 18ko 315/2005 Dekretuko 17.f) artikuluak (2005-10-27ko EHAA) xedatutakoa betez, eta martxoaren 2ko 39/1981 Dekretuak (1981-04-02ko EHAA) eta Hitzarmen kolektiboen erregistroari buruzko maiatzaren 22ko 1040/1981 Errege Dekretuak (1981-06-06ko BOE) xedatutakoaren ildotik.

Bigarrena.– Sinatutako hitzarmenak Langileen Estatutuari buruzko Legearen 85., 88., 89. eta 90. artikuluek xedatutako eskakizunak betetzen ditu.

Honen ondorioz, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Hitzarmena Euskadiko Hitzarmen Kolektiboen Erregistroan inskribatu eta gordailatzeko agintzea, eta aldeei jakinaraztea.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

4825

RESOLUCIÓN de 15 de julio de 2009, de la Directora de Trabajo y Seguridad Social del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales, por la que se dispone el registro, publicación y depósito de la revisión salarial del Convenio Colectivo de Sector para las Empresas Concesionarias del Servicio de Limpieza de Osakidetza, para el año 2009 (código de convenio n.º 8602115).

ANTECEDENTES

El día 25 de junio de 2009 se ha presentado en esta Dirección, la documentación preceptiva referida a la revisión del convenio antes citado, por los representantes de la Mesa Negociadora.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– La competencia prevista en el art. 90.2 de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo (BOE de 29-3-1995) corresponde a esta autoridad laboral de conformidad con el Decreto 4/2009, de 9 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, siendo la Dirección de Trabajo y Seguridad Social el órgano competente en virtud de los dispuesto en el art. 17.f, del Decreto 315/2005, de 18 de octubre, por el que se establece la Estructura Orgánica y Funcional del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, de aplicación transitoria en virtud de lo establecido en la Disposición Transitoria Primera del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, en relación con el Decreto 39/1981, de 2 de marzo (BOPV de 2-4-1981) y con el Real Decreto 1040/1981, de 22 de mayo (BOE de 6-6-1981) sobre registro de convenios colectivos.

Segundo.– El acuerdo ha sido suscrito de conformidad con los requisitos de los artículos 85, 88, 89 y 90 de la referenciada Ley del Estatuto de los Trabajadores.

En su virtud,

RESUELVO:

Primero.– Ordenar su inscripción y depósito en el Registro de Convenios Colectivos de Euskadi, con notificación a las partes.

Bigarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko uztailaren 15a.

Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendaria,
SONIA PÉREZ EZQUERRA.

AKTA

Enpresen aldetik.

Garbialdi S.A.L.: Jesús Etxebarria jauna.

Unión Internacional de Limpieza: Ricardo Villar Calvo jauna, Giza Baliabideen zuzendaria.

Impacto: Gonzalo Alvaro jauna.

Eurolimp: Santiago Manso jauna.

ISS: David Bueno jauna.

Sindikatuen aldetik.

CC.OO. sindikatua: Begoña Martín andrea eta Oscar Arenas jauna.

ELA sindikatua: Elena Moreno andrea.

LAB sindikatua: Marian Ugalde andrea.

UGT sindikatua: Arantza Ruiz andrea.

ESK sindikatua: Montserrat Marañón andrea.

2009ko maiatzaren 20ko 11:00ak direnean, Bilboko ESKren egoitzan bildu dira Osakidetzako garbiketa sektoreko hitzarmen bakarreko batzorde paritario mistoko kideak, ondoko gai-zerrendaren inguruan:

1.– 2009. urterako ordainsarien taula onartzea, eranskinean jasotakoa.

2.– Soldata-igoerari atxikitako kontzeptu guztiak (adperson plusa, antzinatasun bateratua, soldataz kanpoko plusa, eta abar) Osakidetzako langileen plusen hein berean igoko dira, hau da, % 3. Ospitaleratze plusean urteko % 4ko gordina izango da.

3.– Taulen ordainketa ekaineko soldata-ordainagirian erregularizatuko da. Halaber, 2009ko urtarriletik maiatzerako soldata-igoerako atzeratzeak 2009ko ekaineko soldata-ordainagirian egingo dira.

4.– Kontratuak erregularizatu behar direla erabakitzen duten zentroetan kontratua eta bere ordainketa egokitzeko, enpresek atzerapenak eta dagozkien aseguru sozialak ordaindu beharko dizkiete eragindako langileei, eta hauek zentro bakoitzeko ekonomia zuzendaritzari kopia bat igorriko diote.

Eta horrela jasota gera dadin sinatzen da goian aipatu egun eta lekuan.

Segundo.– Disponer su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de julio de 2009.

La Directora de Trabajo y Seguridad Social,
Sonia Pérez Ezquerra.

ACTA

Por la parte empresarial.

Garbialdi S.A.L.: D. Jesús Etxebarria.

Unión Internacional de Limpieza: D. Ricardo Villar Calvo, Director RR.HH.

Impacto: C. Gonzalo Alvaro.

Eurolimp: D. Santiago Manso.

ISS: D. David Bueno.

Por la parte social.

Sindicato CC.OO.: Dña. Begoña Martín y D. Oscar Arenas.

Sindicato ELA: Dña. Elena Moreno.

Sindicato LAB: Dña. Marian Ugalde.

Sindicato UGT: Dña. Arantza Ruiz.

Sindicato ESK: Dña. Montserrat Marañón.

Siendo las 11:00 horas del 20 de mayo de 2009, se reúnen en los locales de ESK de Bilbao los vocales de la Comisión Mixta Paritaria del Convenio Único de Sector de Limpiezas de Osakidetza para tratar el siguiente orden del día:

1.– Aprobar las tablas salariales para el año 2009 que en el anexo se contemplan.

2.– Todos los conceptos sujetos a incremento salarial (plus adperson, antigüedad consolidada, plus extrasalarial, etc.), tendrán el mismo incremento que los pluses de los trabajadores de Osakidetza, es decir un 3%. Siendo el 4% de bruto anual en el plus de hospitalización.

3.– El abono de las tablas se regularizará en la nómina del mes de junio. Asimismo los atrasos de la subida salarial de enero a mayo de 2009 se realizarán en la nómina del mes de junio del 2009.

4.– Para la adecuación del contrato y su abono en los centros que se tenga que regularizar los contratos que así lo estipulen, las empresas deberán realizar los atrasos al personal afectado y abonado los seguros sociales correspondientes, los cuales remitirán una copia a la Dirección Económica de cada centro.

Y para que conste es firmado en fecha y lugar arriba indicados.

2009. URTEKO ORDAINSARIEN TAULA
TABLAS SALARIALES AÑO 2009

TAULA BAKARRA EUSKADIKO HIRU LURRALDE HISTORIKOETARAKO
TABLA UNICA PARA LOS TRES TERRITORIOS HISTORICOS DE EUSKADI

A. SOLDATAK /
SALARIOS

		SOLDATA / *SALARIO*		OSPITALERATZE PLUSA / *PLUS HOSPITALIZACIÓN (*)*	
TALDEA / *GRUPO*	MAILA / *CATEGORIA*	URTEA / *AÑO*	HILABETEA / *MES*	URTEA / *AÑO*	HILABETEA / *MES*
A	A ZERBITZUBURUA / *JEFE DE SERVICIO A*	37.921,55	2.528,10	1.516,86	126,41
B	BZERBITZUBURUA / *JEFE DE SERVICIO B*	32.893,55	2.192,90	1.315,74	109,65
B	ARDURADUN OROKORRA / *ENCARGADO GENERAL*	25.831,64	1.722,11	1.033,27	86,11
C	SAILEKO ARDURADUNA / *ENCARGADO DE SECTOR*	23.736,95	1.582,46	949,48	79,12
E	TALDEKO ARDURADUNA / *RESPONSABLE EQUIPO*	21.357,67	1.423,84	854,31	71,19
B	KUDEAKETAKO TEKNIKARIA / *TECNICO DE GESTION*	28.297,69	1.886,51	1.131,91	94,33
D	ADMINISTRARIA / *ADMINISTRATIVO*	23.870,15	1.591,34	954,81	79,57
D	ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA / *AUXILIAR ADMINISTRATIVO*	22.213,14	1.480,88	888,53	74,04
E	GIDARI GARBITZAILEA / *CONDUCTOR LIMPIADOR*	21.357,67	1.423,84	854,31	71,19
E	PEOI ESPEZIALISTA / *PEON ESPECIALISTA*	20.204,64	1.346,98	808,19	67,35
E	GARBITZAILEA-PEOIA / *LIMPIADORA-PEON*	19.358,00	1.290,53	774,32	64,53

(*) OSPITALERATZE PLUSA HAMABI HILABETETAN ORDAINDUKO DA /
EL PLUS HOSPITALIZACIÓN SE PAGA EN DOCE MENSUALIDADES

B. OSAGARRIAK / *COMPLEMENTOS*					
OSAGARRIAK / *COMPLEMENTOS*	A TALDEA / *GRUPO A*	B TALDEA / *GRUPO B*	C TALDEA / *GRUPO C*	D TALDEA / *GRUPO D*	E TALDEA / *GRUPO E*
ANTZINATASUNA URTEKO *ANTIGÜEDAD AÑO*	721,19	584,07	523,81	420,90	371,13
ANTZINATASUNA HILABETEKO / *ANTIGÜEDAD MES*	48,09	38,94	34,52	28,07	24,75
GAUEKOTASUNA / *NOCTURNIDAD*	49,41	40,19	32,68	28,60	28,60
JAIEGUNA- IGANDEA EGUNA / *FESTIVO-DOMINGO DÍA*	73,82	59,47	46,65	43,01	43,01
JAIEGUNA GAUA / *FESTIVO NOCTURNO*	105,47	84,94	66,65	61,43	61,43
TXANDAKATZE PLUSA URTEKO / *PLUS TURNICIDAD AÑO*	1.506,92	1.130,00	847,51	678,03	678,03
TXANDAKATZE PLUSA HILABETEKO / *PLUS TURNICIDAD MES*	125,54	94,17	70,63	56,50	56,50